



Gipuzkoako Bazkondeak azpikontratazioko 75 enpresa baino gehiago trakzionatuko ditu euren nazioartekotzeko prozesuan

- *Gipuzkoako Bazkondeak lurraldeko azpikontratazioko enpresak trakzionatuko ditu Subcontex programaren bitartez.*
- ***Subcontex** azpikontratazioko enpresen nazioartekotzea sustatzen duen programa bat da. Programa hau 2015eko iraila arte luzatuko da.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko ditu enpresak, tamainaren arabera %65 edoeta %75a jasoko dute.*

Donostia, 2014ko abenduaren 16a. Gipuzkoako Bazkondearen Subcontex programa azpikontratazioko enpresen nazioartekotzea bultzatzen duen proiektu oso bat da, fakturazioaren areagotzean eta berreskuraketan ardaztua dagoena. Proiektu hau 2015eko iraila arte luzatuko da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza jasoko du. Diru laguntza 482.000 euroko izango da eta Gipuzkoako ETEen nazioartekotzeko prozesuaren laguntza programan barneratzen da.

Azpikontratazio industria Gipuzkoako industriaren BPGaren %27,6a ordezkatzen duen sektorea da eta Subcontex programaren helburua nazioartekotzearen bitartez lurraldeko azpikontratazio enpresen fakturazioa berreskuratzea eta areagotzea da. Horretarako, programa honek ekintza ezberdinak izango ditu:

-Azpikontratazio industriaren eskaera eta eskaintzaren funtsezko aldean azterketa egingo da. Gure azpikontratazio enpresen lehiakortasuna aztertuko da Europako eta Iparraldeko Afrikako bezeroen beharrak kontutan hartuz, horrela Frantziako, Suitzako, Alemaniako eta Marokoko enpresa erosle garrantzitsuenen hautaketa bat egingo delarik.

-Nazioarteko merkatu ezberdinetan identifikatutako aukerak aztertuko dira.

-Enpresa bakoitzaren balore eskaintza eskariari egokituko zaio. Enpresa bakoitza bakarka ebaluatuko da, bere eskaintzaren arabera eta nazioarteko erosleek euren hornitzaileak aukeratzeko orduan ezarritako irizpideen arabera, hau guztia eskaintza lehiakor baten bitartez balorea lortzeko helburuarekin.

-Enpresen salmentak areagotzeko ekintza zuzenak egingo dira. Bisitak eta bilerak egingo dira herrialde ezberdinetan erosle posibleekin. Erosleen bilerak eta bisitak egingo dira gure enpresetan. Nazioarteko ferietan partehartzeko aukera taldeko eskaintza izango duen informazio Stand batekin. Azpikontratazioko boltsan sartzea...

-Sektoreari buruzko informazio garrantzitsua.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347